

Perutxu artzaina eta jentila

Koldo Amestoy-ek kontatua

Behin, Perutxu gaztea mendian artzain zelarik, koralian bere ardiak deitzirik, egunero bezala gasna egiteko, esnea ontzi batean etxolara ekartzen du. Orduan, hitzik erran gabe, Jentila erraldoi bat hurbiltzen zaio, etxolako atariraino laguntzen du eta hortxe, harrizko jarlekuan jartzen da, artzain gazteari eskatuz:

- Emaidazu esne-ontzi hori ! Bide luzea egin dut eta egarri naiz. Perutxuk, beldurrak mututurik, ontzia ematen dio. Erraldoiak bere eskuak luzaturik, ontzia hartu eta zurrustada luze batean esne guzia edan eta hustsik itzultzen dio :

- A bai, hau bai zinez esne ona eta gozoa dela! Bihar ere jinen nitzaitzu, horrelako beste horrelako esne ontzitarra bat edatera. Eta Jentila urruntzen zaio, artzain gaixoa, harriturik eta penaturik uzten duela.

Biharamun arratsalde bukaeran, bezperan bezala, Jentila eta mutila etxolako atarian juntatu dira. Perutxuk bere esne-ontzia erraldoiari luzaturik, besteak, zanga zanga esnea dena ikilimilikiliklik edaten du, ontzia hustu arte.

Horrela egunero, Jentila heldu da artzain gaztearengana. Eta honek, ez dio sekula deus erraten. Ardiei deitzi dien esnea, aldiro erraldoiak hurrupaldi batean, bere begien bistan dena klikatzen badio ere, ez zaio batere oldartzen.

Azkenean, hala ere, Perutxu etsiturik, artzai lagun batengana joaten da eta gertatzen zaiona azaltzen dio. Bestea, irriz karkailaka hasten zaio, erranez :

- Zure ardiekin goizetik arratsera hainbeste lan eginik, eta hain nekez deitzitako esne hori dena, erraldoi horri ematen diozula. Eta hori, Jentilak eskatzen dizulako, zure ontasuna begiak hetsirik bezala ematen diozula iduri du. Tonto handi bat zara. Besterik ez !

- Nitaz irri egiten duzu, erraten dio Perutxuk, baina zuk zer eginen zenuke, nire lekuan bazina ?

- Nik, Jentil baliatzaile honi behin betiko irakaspen zerbait emanen nioke. Nire txabolara agertzeko eta nire ardien esnea edateko gogoia sekulakotz kentzeko gisan.

- Erratea erraza bada, obratzea besterik da. Jentila ni baino askoz ere indartsuagoa da, eta honen kontra gatazkatea, debaldetan aritzea da.

- Baina, nork aipatzen dizu honekin borrokatzea ? Denek badakigu Jentilak gu baino handiagoak eta ahaltsuak direla. Beraz gogorkeriaren kontra, egokiena da, maltzurkeriaz jokatzeko.

Orduan, artzain lagunak gogoan duena erraten dio. Bata kalakan eta bestea isilik, burua gora behera dantzanez, Perutxuk keinuz baieztatzen dio dena.

- Zuk aipatu aterabidea frango ona iduritzen zait. Eta beraz, beste hauturik ez dudanez, kontseilatzen didazuna eginen dut.

Biharamunean, usaian baino goizago artzain lanak bukaturik, ardi-esnea etxolara ekartzen du. Eta hortxe, ate ondoko harrizko alki azpian egur idor pila bat metatzen du eta hau ontsa kokaturik, su ematen dio. Infernuko suak berotua bezala, harri beltza izatetik, zuri zuria bilakatu da. Perutxu, beha egoteko lasai, belardian etzaten da. Ez du luzaz itxaron. Beste egunetan bezala, agertu baitzaio Jentila. Eta deus esan gabe harrizko jarlekuan eseritzeko.

Perutxuk ez du esne-ontzi erraldoiari hurbiltzeko astirik ere ukan... Jentilak, jartzea eta xutitzea, biak betan eta abiada berean egin baititu. Oihu eta garrasi lazarriak botatuz, ipurdia sutan duela eta, minez oihuka eta nigarrez, jauzika punpela, lasterka korrika mendiari gora ihesi doa, han nonbait desagertzeko...